

# PRODUKTUEN SEGURTASUNA

## Informatika eta Internet



ASMATU  
JOPUNTUAN. ZURE  
SEGURTASUNA  
DAGO JOKOAN

## Ikaslearen Koaderno



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION  
EUSKAL AUTONOMO ERREGLARITZA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACION



COMISION EUROPEA

Konturatu behar duen Nazioarteko SAREAN Europako Komunitatearen Eskualdeko Akordioak diren: Behar handieneko Autonomia Erregional hartzen dutelako parte (Kanariar, Aholku, Valentziako Komunitatea, Galizia, Gaztako-Madride, Euzkari Autonomia Erregionala, Euzkadiak, Madride, Azpoko -Gaztako eta Lezo, Errota, Kataluniar eta Kataluniar) eta beste estatuak (Española, Portugal, Italiar, Greziar eta Frantziar). Osatzen du Europako Komunitatearen (Konturatu) Informatika Nazionalak eta Hezikuntza, Kultura eta Kirolen Ministerioaren (Europako proiektuei) Zuzendaritza Nazionalak agurtze jaso da.



1. **Ordenagailua erosten duzunean, segurtasunean pentsatu. Kalitate oneko monitorea eta pantaila aukeratu; irudi keinukariek begiak nekarazi, eta buruko mina ematen dute. Babesteko iragazkia ipini.**
2. **Ordenagailuaren osagaiak berogailu eta bero iturrietatik urrun eduki behar dituzu. Era berean, aireztapeneko zirrikituak estaltzea ekidin.**
3. **Horniketa elektrikoko kable homologatuak soilik erabili. Ez piztu modema eta telefonoa ekaitz elektriko bat dagoenean: deskarga elektrikoko arrisku handia egoten da.**
4. **Zaindu ordenagailuaren osagaien zabalguneeetan ezer sar ez dadin. Sutea sor daiteke, edo talka elektrikoa jasan, barruko osagaien artean zirkuitulaburra eragitean.**
5. **Hobe duzu ez edan eta ez jatea ordenagailutik gertu. Ez isuri likidorik edo jakirik ordenagailuaren osagaien gainean. Ez piztu ordenagailua giro hezean, eta bustitzen bazaizu, itzali eta hornitzaileari deitu.**
6. **Ordenagailua matxuratuta dagoela uste baduzu, onena teknikari batek konpontzea da. Ez ahaztu ordenagailua sare elektrikora konektatuta dagoela, beraz, inor barruan ibiliko zaionean, deskonektatu beharko duzue. Utzi ordenagailuari hozten estalkiak desmuntatu edo barruko osagaiak ukitu baino lehen.**
7. **Ez zaitetz luzaro egon ordenagailuaren aurrean. Gogoan izan ikusmenean edo jarretan arazoak izan ditzakezula.**
8. **Ez eman Interneten, zure datu pertsonal edo ekonomikorik behar den segurtasunaren bermerik gabe. Ez hitzordurik jarri, interneten bidez, ezagutzen ez duzun jendearekin. Ez eman zure helbide eta telefonorik, ez eta zure argazkirik ere. Sarean "chat"ean aritzeko dauden toki guztiak ez dira haur edo nerabeentzat egokiak, "haur eta nerabeentzat bereziki direla" iragarri arren.**
9. **Gomendatzen dizugu zure kreditu txartelaren daturik edo bankuaren xehetasunik ez ematea ezezagunei, edo nortasuna aurretiaz egiaztatu ez diezun pertsoneri. Norbaitek datu horiek zuri lapurtzeko balia litzake. Ez eman zure pasahitzik inori, zure ordez ari liteke eta.**
10. **Interneterako konexio etengabea baduzu, kontraturik edo "firewal"ik jartzea komeni zaizu, inor zure ekipora zure baimenik gabe sartzea eragozteko. Kontuz birusekin, jarri antibirus on bat. Ez badakizu nola babestu, galdetu zure konfiantzako norbaiti.**

#### AURKIBIDEA

1. HASTEKO	>>> 1	4. DENBORA-PASAK	>>> 9
2. INFORMATIKA ETA INTERNETI BURUZ MUSIKATZEN	>>> 1	5. DENBORA-PASEN SOLUZIOAK	>>> 10
3. JARDUERAK	>>> 2	6. UMORE GRAFIKOA	>>> 11
		ERANSKINA	>>> 12

Argitaratzailea: Kontsumitzailearen Hezkuntza Sarea

<http://www.infoconsumo.es/eecred>

Egileak:

Nieves Álvarez Martín

Laguntzaileak

Leticia Ortiz Bedia, M<sup>a</sup> del Pilar González Echezarreta,

Ana Vallejo Echezarreta, Estíbaliz Ruiz de Mendoza Vitoria

Diseinua eta maketazioa:

M<sup>a</sup> Isabel Gómez Bedia

M<sup>a</sup> Luisa Lavín Solana

Ale-kopurua:

Autonomia Erkidego bakoitzerako koordinazioa:

Gonzalo Sánchez Moreno (Kantabria)

Rafael González del Busto (Asturias)

M<sup>a</sup> José López Ródenas (Valentziako Erkidegoa)

Esther Álvarez Fernández (Galizia)

Alejandro Salcedo Aznal (Gaztela-Mantxa)

Arrate Martínez de Guereñu (Euskal Herria)

José M<sup>a</sup> Iglesias Sánchez (Extremadura)

Susana Gil (Madril)

Francisca Pérez Jiménez (Aragoi)

Carmen Herrero Álvarez (Gaztela eta Leon)

Susana Conde Escorihuela (Errioxa)

Luis Domínguez Rodríguez (Kanariak)

Julià Guimerá Gargallo (Katalunia)

Lege Gordailua:

Inprimaketa: J. Martínez S.L.



# 1. HASTEKO

Informatikako baliabide motaren bat erabili al duzu?. Zer baliabide mota?, Internet erabiltzen al duzu?, zer maiztasunez?, zein dira bisitatu ohi dituzun orrialdeak?, produktu hauek erabiltzean dauden arazo eta aukeren berri al duzu?, informatika eta Internet kalterik sortzen ez duten produktuak direla uste al duzu?, zure osasunerako arazoren bat izan dezakeela pentsatzen al duzu?, arrisku hauek gerta daitezkeen arriskuak eta egoerak ezagutzen al dituzu?

Galdera asko? Baliteke, baina... erantzun guztiak ezagutzen al dituzu? Batzuk, itxuraz errazak dira, baina... benetan horrelakoak al dira? Kasu hauetan eta antzeko beste batzuetan, erantzun zuzena ez baduzu aurkitzen, horren emaitza hasieran batean iruditu zaizuna baino arazo askoz larriagoa izan daiteke zuretzat. Hori dela eta, informazioa baldin baduzu, hori saihestu ahal izango duzu. Gainera, noizbait pentsatu al duzu informatika eta Internet ikasteko materia izan zitekeenik? Ez, ezta? Bada, ikus dezakezunez. Hori dela eta, interesgarria izan daiteke arreta jartzea eta koaderno honetan agertzen diren jarduera guztiak eta ikasgelan proposatzen dizkizutenak egin ditzazun. Amaieran, segurtasun osoz, hauei eta bestelako galderei erantzuna eman ahal izango diezu, hainbat bitxikeria ezagutuko dituzu eta pentsatu gabe zerbait egin baino lehen prebenitu ahal izango duzu, eta informazio gehiago duen pertsona izango zara ordenagailu bat erabili edo Interneten nabigatu aurretik, ondoren eta bitartean.



# 2. INFORMATIKA ETA INTERNETI BURUZ MUSIKATZEN

Koaderno honetako azken orrialdea begiratu al duzu? Ez baduzu egin, egin ezazu orain. «Informatika eta Interneten dekalogo» irakurri al duzu? Zure lagunekin batera berriz ere irakurri, hausnarketa egin bakarrik edo taldean. Honezkero argi al duzu? Bada, orain konpositorea zarela eta informatika eta Interneti buruzko abesti baten letra eta musika egiteko agindu dizutela pentsatu behar duzu. Irakurri duzunaren antzeko letra asma ezazu, zure hizkerari, estiloari egokitzen duzula; gehien gustatzen zaizun erritmoa aukera ezazu (rap, rock, pop...). Ondoren, bakarrik edo zure lagunekin batera, maketa bat grabatu, ausartzen al zara? Gure web gunean begiratzen baldin baduzu horrekin egin dezakezuna jakin ahal izango duzu.

[www.infoconsumo.es/dianaseguridad](http://www.infoconsumo.es/dianaseguridad)



# 3. JARDUERAK

Hemen jarduera-fitxa zenbait dituzu. Ikasgelan zure irakaslearekin batera egin ditzakezu, horrek horiek egiten lagundu ahal izango dizula. Honela, informatika eta Interneti buruz dituzun ezagupenak probatuko dituzu. Informazio batzuek harrizko zaituzte. Amaieran, gauza erabilgarri asko ikasiak izango dituzu eta zure segurtasunez dlanan emateko gauza izango zara.

## I. FITXA: ZEIN DA INTERNETI EMATEN DIOGUN ERABILERA?

Internet zuzen erabiltzen duzula uste al duzue? Eta ezagutzen duzuen jendea? Orain hori ezagutzeko momentua da, kontua da zuen ikastetxean Interneten ematen dioten erabilerari buruzko ikerketa egitea da.

Horretarako inkesta bat duzue, hori ikastetxeko ikasleei pasatuko diezue. Taldeka lan egin dezakezue eta datuak bildu ondoren, tauletan jarriko dituzue eta ikasgelan eztabaidatuko duzue.

### INKESTA

#### 1.- Internet erabiltzen al duzu?

- Bai                       Ez

#### 2.- Nondik sartzen zara Internetera?

- Etxea (aukera hau hartzean hurrengo galderari ere erantzun)  
 Ikastetxea  
 Terminal publikoa (ziberrak...)  
 Bestelakoak...

#### 3.- Interneten sartzeko zer linea duzu etxean?

- Telefono konbentzionala  
 ADSL  
 Kableko sarea  
 RDSI  
 Ez daki  
 Bestelakoak...

#### 4.- Zer ekiporen bidez sartzen zara Interneten?

- Ordenagailua       Telebista  
 WAP sakelako telefonoa  
 Kotsola

#### 5.- Azkeneko urtean erosketaren bat egin duzu internet bidez?

- Bai                       Ez

#### 6.- Zein ataritan sartu ohi duzu?

- Orokorrak edo bilatzaileak

- Egunkari digitalak  
 Emakumeari buruzkoak  
 Aisiakoak (jokoak, txatak...)  
 Kirol informazioa  
 Dendak  
 Alegiazko komunitateak edo orrialde pertsonalak  
 Bestelakoak...

#### 7.- Azkeneko urtean weben bidez erositako zerbitzua edo produktua zein da?

---

---

#### 8.- Azkeneko urtean enkante-orrialde baten bidez zerbait erosi edo saldu al duzu?

- Bai                       Ez

#### 9.- Gutxi gorabehera, zenbat diru gastatu duzu azkeneko urtean Internet bidezko erosketetan?

- Ezer ez       30 euro baino gutxiago  
 30 eta 60 euro bitartean  
 60 eta 120 euro bitartean  
 120 eta 300 euro bitartean  
 300 eta 600 euro bitartean  
 600 euro baino gehiago

#### 10.- Zein dira bideojoko batean gehien gustatzen zaizkizun alderdiak?

- Pertsonaiak       Eszenografia  
 Erronkak       Bestelakoak...



**11.- Noiztik erabiltzen duzu Internet?**

\_\_\_\_\_

**12.- Zer maiztasunez sartzen zara Interneten?**

- Hainbat aldiz egunean
- Hainbat aldiz astean
- Hilabetean behin baino gutxiagotan
- Egunero edo ia egunero
- Pare bat aldiz hilean
- Bestelakoak...

**13.- Egunean zenbat orduz sartzen zara Interneten?**

- Ordubete baino gutxiago
- Ordubete eta 4 ordu bitartean
- 4 eta 8 ordu bitartean
- 8 ordu baino gehiago

**14.- Nola ikasi zenuen Internet erabiltzen?**

- Guraso edo irakasleen laguntzarekin
- Bakarrik
- Lagunek lagunduta
- Ikastaroak  Bestelakoak...

**15.- Jarduera hauetako bat egiten ematen duzun denbora murriztu da Interneten sartzeagatik?**

- Ikastea  Lo egitea
- Irakurtzea  Kirola egitea
- TB ikustea  Lagunekin irtetzea
- Ezer ez egitea  Bestelakoak...
- Ikuskizunetara joatea

**16.- Internet erabiltzerakoan zein izan dira topatu dituzun zailtasunik handienak?**

- Abiadura
- Segurtasuna
- Kostu telefonikoa
- Publizitate asko
- Konfidentzialitate txikia
- Bestelakoak...

**17.- Zein da Interneten sartzearen arrazoi nagusia?**

- Ikasketak  Bestelakoak...
- Erabilera pertsonala

**18.- Posta elektronikorik al duzu?**

- Bai  Ez

**19.- Spamm (eskatu gabeko mezuak) motako mezuak zein maiztasunez jasotzen dituzu zure postan?**

- Bat egunean
- Bat astean
- Bat hilean
- Bat baino gehiago egunean
- Batzuk astean
- Batzuk hilean
- Ez dut sekula jaso
- Bestelakoak...

**20.- Web orri pertsonala al duzu?**

- Bai  Ez

**21.- Nola duzu ordenagailua konfiguratuta cookiei dagokienez?**

- Denak onartzen ditut
- Denak atzera botatzen ditut
- Ohartarazten dit eta normalean onartzen ditut
- Ohartarazten dit eta normalean atzera botatzen ditut
- Ez dakit
- Bestelakoak...

**22.- Saiatu bisitatu dituzun azkeneko 5 webak gogoratzen.**

\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_



## 2. FITXA: INTERNET MODU SEGURUAN ERABILTZEN AL DUGU?

Honen bidez, hala informatikako ekipoak nola Internet erabiltzerakoan dagoen segurtasun-maila zein den begiratzea nahi dugu.

Horretarako, ikastetxeko zuen ikaskideen artean inkesta-test bat egingo duzue.

Guztiek eskuratu duzuen informazioa bildu ondoren eta galderaka multzokatu ondoren, irakasleak emango dizkion erantzunekin alderatuko dituzue eta ondorioak aterako dituzue.

### INKESTA

1.- Zure ordenagailua noizbait birusen batez kutsatu al da?

Bai  Ez

2.- Ordenagailurako birusen aurkakoren bat erabiltzen al duzu?

Bai  Ez

3.- Birusen aurkakoa aldi-aldian eguneratzen al duzu?

Bai  Ez

4.- Pasahitza segurtasun-elementua dela uste al duzu?

Bai  Ez

5.- Oro har, zenbat pasahitza erabiltzen dituzu?

---

---

6.- Zure pasahitzak apuntatu honako honetan gordetzen dituzu...

- Koaderno batean
- Ordenagailuaren fitxategi batean
- Ordenagailuari itsatsita paper batean
- Bestelakoak...

7.- Gune batek erregistratzeko eskatzen dizunean, zer da egin ohi duzuna?

- Ez ditut nire datu pertsonalak inoiz ematen
- Orrialdea segurua izatearen bermeak ditudanean erregistratzen naiz
- Gezurrezko datuak ematen ditut
- Bestelakoak...

8.- Zure ordenagailua aldi-aldian cookiez husten al duzu?

Bai  Ez

9.- Noizbait txat edo berriketa baten bidez ezezagunei datu pertsonalak eman al dizkiezu, hala nola zure helbidea, telefonoa edo argazkia?

Bai  Ez

10.- Zure ordenagailuan suebaki bat instalatuta al duzu?

Bai  Ez

11.- Zure ordenagailuaren osagaiak berogailu... bezalako bero-iturrietatik urrutit al daude?

Bai  Ez

12.- Zure ordenagailuaren aireztapen-saretxoak aldi-aldian garbitzen al dituzu?

Bai  Ez

13.- Zure ordenagailua manipulatzerakoan, zer egiten duzu?

- Segurtasun handiagoa izateko eskularruak jartzen ditut
- Ordenagailua korrante elektrikotik deskonektatzen dut eta hotz dadin uzten dut
- Zuzenean manipulatzen dut kontu handiz

14.- Ordenagailua erabiltzen duzun bitartean jan edo edan ohi duzu?

Bai  Ez



### 3. FITXA: HISTORIARI ARRASTOA JARRAITZEN DIOGU

Interneteko bilakaera historian zehar nolakoa izan den noizbait pentsatu al duzue, edo, agian, bere hasieratik aldaketarik izan ez duela uste al duzue?

Jarduera honen bidez Interneteko historiari buruzko informazioa eskura dezazuen nahi dugu, horrela, bere jatorria zein izan zen, noiz bidali zuten aurreneko posta elektronikoa, @ letraren jatorria zein izan zen edo saguaren historia nolakoa izan den bilatuko duzue.

Taldeka lan egin dezakezue eta informazioa bildu eta egituratu ondoren, jakin duzuenaren aurkezpen laburra egingo duzue.

Zuen ikerketa egiteko hainbat web orri gomendatu nahi dizkizuegu:

<http://jamillan.com/histoint.htm>

<http://www.uoc.edu/web/esp/articles/vintoncerf.html>

<http://www.caravantes.com/arti03/arroba.htm>

<http://www.vc.ehu.es/wuagacaj/manual/web/origen.html>

<http://www.cosmopediaonline.com/sputnik.html>

[http://www.sinvirus.com/virus\\_cronologia.shtml](http://www.sinvirus.com/virus_cronologia.shtml)

Jarduera honen paraleloan eta lanaren ondorioztat honako hamar galderei erantzun behar diezue, horien soluzioak ikerketa aurrera eraman ahala aurkituko dituzuela.

1.- Ordenagailuko aurreneko sagua asmatu zuenaren izena zein da?

2.- Lehendabiziko begitartea noiz bidali zuten?

3.- Ziberespazio hitza nork asmatu zuen?

4.- TCP protokoloaren sortzailearen izena?

5.- Zer gerraren ostean sortu ziren Interneten hastapenak?

6.- 1957. urtean ARPA agentzia sortu zuten, urte horretako urrian sobietarrek abiarazi zuten...

7.- 1988. urtean Interneteko historian gertatu diren erasorik handienetako bat egin zuen lehendabiziko har-birusa sortu zuenaren abizena zein da?

8.- Zein hizkuntzako den @ letra?

9.- Zein izan zen posta elektronikoko aurreneko helbidea?

10.- Europako zein herrialdetan du jatorria World Wide Web (www.) delakoak?



## 4. FITXA: INFORMATIKA ETA INTERNET PRENTSAN

### 1 ZATIA: IKERKETA

Jarduera honetan prentsan argitaratu dituzten albisteen bidez Internet eta informatikako munduaren analisia egin dezazuen nahi dugu.

Ikerketa-lan hau egiteko, informazioa hemeroteketan bilatu ahal duzue. Ikerketa ildo zehatz batean bidera dezazuen garrantzitsua izango litzateke. Gure proposamena Sarearen bidez egiten dituzten iruzurrak eta timoak dira, hau oso gai interesgarria da eta gainera timoteka bat egitea ahalbidetuko dizue. Laguntza txikia izan dezazuen, hona hemen koadro txiki bat, bertan informazioa bildu ahala idatzi ahalko duzuela.

SAREKO TIMOTEKA			
Timo edo iruzurraren izena	Zertan datza	Modalitateak (egotekotan)	Kontseiluak edo gomendapenak

Material osoa bildu ondoren eta azkeneko txostena egin ondoren, talde bakoitzak ikasgelan aurkeztuko du.

### 2 ZATIA: ANALISIA

Bestaldetik, fitxa honetan prentsan agertu diren hiru albiste eskaini nahi dizkizuegu, horietan informatika eta Interneteko gaia lantzen dute. Oraingoan horietan jasota dagoen informazioa azter dezazuen eskatu nahi dizuegu.

#### 1. ALBISTEA. EL PAÍS (03/07/10)

*Espainiako erabiltzaileen % 50 baino gehiagok birusen aurkakoaren babesik ez dute eta berau jakin ere ez dakite.*

*Etxeko alorrean ordenagailuen %19 baino ez dago behar bezala babestuta eta % 55,87ak ez du birusen aurkakorik edo berau eguneratu gabe du. Panda Software birusen aurkako enpresak egin duen zundaketaren arabera.*

*Enpresa txiki eta ertainetan (25 PC edo gutxiago) dagoen babes-mailari dagokionez, % 32,09ak baino ez ditu bere ordenagailuak egoki babestuta eta % 39,39ak ez du birusen aurkakorik edo eguneratu gabe du. % 28,52ak ez daki babesik duen edo horrek ageri diren azkeneko birusak detektatzen edo desinfektatzen.*

*Ehuneko hauek txikiagoak izaten dira ordenagailu kopurua handiagoa izan ahala, horrek esan nahi du birusek eta horien ondorioek kezka handiagoa eragiten dutela orduan eta handiagoa den enpresa.*

*Txostenaren arabera, erabiltzaileak argudio hauetan oinarritzen dira birusen aurkako babesa ez izateko erabakia hartzerakoan: % 38ak babesik ez duela behar uste du Internet gutxi erabiltzen duelako eta leku ezagunetan konektatu edo lagun eta senideekin posta trukatu baino ez duelako egiten; % 28 ez dago birusak direla eta kezkatuta eta % 20ri birusen aurkakoak garestiak direla uste du.*

#### 2. ALBISTEA. MOBILE NEWS (03/03/11)

*Zientzia eta Teknologia Ministerioak Interneten egungo 906 zenbakiak ordezkaturako dituzten tarifakazio gehigarriko kode berrien bidez (803, 806 eta 807) sartzea ez baimentzeko konpromisoa hartu du Interneteko Erabiltzaileen Elkarteak (IEE) otsailean aurkeztutako idazkiei erantzunda.*

*Zientzia eta Teknologia Ministerioko Informazioaren Gizarterako eta Telekomunikazioen Estatu Idazkaritzak Elkartera igorri duen idazkian arautzeko honako ekimena hitzez hitz jaso dute:*

*«Internet bidezko nabigazioak berezitasunak kontuan hartuta, hots, minutu apur batzuk bakarrik ez direla eta iraupen erdiko dei batek tarifakazio gehigarriko zenbaki baten bidez izan lezakeen prezio handia dela kausa, ez dute baimenduko 803, 806 eta 807 kode berrien bidez Interneten sartzea. Bestaldetik, Interneten sartzeko zenbaki zehatz batzuk (908 eta 909 kodeen bidez) daudela gogorazi behar dugu, horiek horretarako askoz egokiagoak dira, bai ikuspegi teknikitik nola erabiltzaileen eskubideak babestearen ikuspegitik (...).»*





Tarifikazio gehigarriko zerbitzuak kode edo aurrezenbaki bat markatuta eskuratzen ditugun zerbitzuak dira. Gaur egun, kode hauek 903 edo 906 zenbakiak dira, hauek gutxi barru desagertuko dira eta markatzeko 803, 806 eta 807 kode berriak (aurki erabilgarri egongo direnak) agertuko dira.

Azkeneko hilabeteetan bere telefonoko fakturretan 906 tarifazio bereziko sistema baten bidez Interneten konektatzeagatik zenbateko handia jasotzen duten erabiltzaileen kezak handitu dira. Konexio horiek kaltetutako emandako baimenik gabe egiten dute eta horrela Interneterako konexioa ohizkoa baino 50 aldiz handiagoa izatera irits daiteke. Arazo hau biziki larria da. Izan ere, kasuen %60 baino gehiagotan, zerbitzu hauen ezarri eta erabili zituztenak adin txikikoak izaten baitira.

«Ministerioaren iragarpen hau positiboki baloratzen dugu, horrek, zalantzarik gabe, Interneten gertatu diren iruzur-igoera geldiaraziko du, halere, nahikoa ez dela pentsatzen dugu, fakturatzeko sisteman gardentasuna egon dadin eta babesgabeenez abusatzen direnei legea aplikatu diezaieten nahi

dugu.» zehaztu zuen Pérez Subiasek, Elkarteko lehendakaria denak.

Interneteko Erabiltzaileen Elkartek (IEE) egun dagoen erregulazioa aldatzeko ere eskatu du tarifazio gehigarriko kargua jasotzen duen edozein erabiltzailek zerbitzu hori ustiatzen duen enpresa arduraduna zein den jakin dezan eta Zerbitzuei buruzko Legea aplikatu dezaten, arreta berezia jartzen dietela adin txikikoek gehien bisitatu dituzten guneak.

Iruzurrak handitzearen arrazoiak Interneten «logo, melodia, pantaila-babeslea, jokoak, kasinoak, e.a.»en erakargarritan bidez topatzen dugun publizitatean dago, horiek kasu askotan adin txikikoek bisitatu ohi dituzten atalak hartzen dituzte. Elkartek aztertu dituen 100 kasu baino gehiagoren % 98an publizitate hori ez dator bat indarrean dagoen legediarekin, izan ere, ez baitute titularitatea azaltzen ez dute erabiltzaile behar bezala jakinarazten eta ordenagailua aldatzen duten horretarako baimenik eman gabe.

### 3. ALBISTEA. EXPANSIÓN (03/11/18)

Espainiarrek bere etxebizitzetan egiten duten Interneten kontsumoa azkeneko hilabeteetan izugarri handitu da aisiako bestelako jardura batzuen kaltetan. Fenomeno honek gehien kaltetu duena telebista izan da, honi sareak esparrua kendu diola.

(...)Nielsen/Netratings izenekoaren datuen arabera, internauta espainiarrek batez beste Interneten 32 minutu ematen dituzte konektatzen diren bakoitzean. Kopuru hau Europako handiena da Suedia, bertan saio bakoitzeko denbora 28 minutukoa da batez beste, edo Erresuma Batua, saio bakoitzeko denbora 30 minutukoa delarik batez beste, bezalako beste herrialde batzuetan dagoenarekin alderatzen badugu.

Egoera honen aurrean, zalantza sortzen da espainiarrek Internetez gero eta maizago egiten duten erabilera telebista ikustea, irratia entzutea eta irakurtzea bezalako bestelako jardurekin nola uztartuko duten. Edo, bestela, jardura horietan Interneten etengabeko kontsumoak gehien kaltetzen duena zein diren. Komunikabideak Ikertzeko Elkarteko (AIMC)lehendakaria den Julián Bravok «Interneteko nabigazioak, batez ere, telebista kaltetzen duela» baieztatzen du.

AIMC elkartearen datuen arabera, 1997. urtean telebistaren eguneroko kontsumoa batez beste 231 minututan zegoen bitartean, 2001. urtean 226 minutuetara jaitsia zen. Miguel Pérez Subiasek, Interneteko Erabiltzaileen Elkartearen (IEE) lehendakaria denak, «ia egunero eta denbora askoz, zinemara joateko bezalako uanean-uneko beste batzuen aldean, egiten duten jardura denez, normala da Interneten erabilerak batez ere telebistaren kontsumoari eragin diezaion» adierazi du.

Victor Domingok, Internauten Elkartearen (IE) lehendakariak, «gaur egun, Interneten sartzea eta telebistaren kontsumoa etxean bakarrik gozatzen ditugun eta, gainera, elkarren bateraezinak diren bi jardura direla» gaineratu du. Horregatik, «Internet geroz eta gehiago erabiltzeak telebistaren kontsumoa murriztuz dezan

logikoa dela» azaldu du. Domingok «irratia edo prentsa idatzia bezalako beste komunikabideak ez direla hain kaltetuta gertatu etxetik kanpo egin ditzakegun jarduerak direlako» ziurtatu du. Horretaz gain, irratia kasuan, berau Interneten barruan sartuta gauden bitartean ere entzun dezakegu». Joera hori berretsita gelditzen da Estatu Batuetako merkatuari begiratzen baldin badiogu, berau Interneteko kontsumoari dagokionez garatuen dagoena delarik. Estatu Batuetan % 72,3ak Internet erabiltzeko aukera du, eta kopuru hori % 22,7ra baino ez da iristen Espainiako estatuaren kasuan. Gainera, iparramerikarrek, batez beste, astean ia 10 orduz nabigatzen dute eta espainiarrek, ordea, ia zazpi ordu hilean.

Mahai ganean datu horiek ditugula, Los Angelesen dagoen Kaliforniako Unibertsitateak (UCLA) egindako ikerketa batek telebista dela Interneteko fenomenoak gehien kaltetu duen jardura aditzera ematen du eta irratia entzutea, irakurtzea, lo egitea edo kirola egitea, aldiz, ez dira hain kaltetuta gertatu. Horrela, Estatu Batuetan Interneteko erabiltzaileek telebista nabigatzen ez dutenek baino lau ordu eta erdi gutxiagoz ikusten dute.

Fernando Pardo, Merkataritza Elektronikoaren Espainiako Elkartearen (AECE) lehendakaria denak, baieztatu du «Estatu Batuetan gertatu den bezalaxe, lehen telebista asko ikusten zuen jende gaztea, orain txateatzen ibiltzen dela kontuan hartuta, joera hori Espainian ere geroz eta gehiago areagotuko dela». «Batez ere, arratsaldeko seietatik zortzietara bitarteko ordutegian, ordu horretan lantokitik edo unibertsitatetik itzultzen baitira eta oraindik ez da telebistaren programazio nagusia hasi, berau gaueko hamarretatik aurrera hasten delako.

Espainiarren kontsumo-ohituretan izan den aldaketa hau kontuan hartuta, telebista eta Internet bateratzeko geroz eta behartuago daudela argi dago. Galdetutako adituen iritiziz, etorkizunean pantaila bakarra egongo da eta horren bidez nabigatu eta telebista ikusi ahal izango dugu.



## 5. FITXA: ALEGIAZKO DENDAK

### A AUKERA: ALEGIAZKO DENDAK AZTERTUKO DITUGU

Jarduera honen helburua hainbat alegiazko denda azter ditzazuen da, hori egiteko zenbait puntu proposatu nahi dizkizuegu.

AZTERTU BEHARREKO ALDERDIAK	1. Denda	2. Denda
Bere jarduera argi eta garbi identifikatzen al da?		
Interneten aurkitzen erraza al da?		
Edozein erabiltzailek eskura izan dezake (nabigatzailea, plataforma, monitorea, bereizmena... alde batera utzita)?		
Elbarrietara egokituta al dago?		
Hainbat hizkuntzatan eskuragarri al dago?		
Dendaren testuak irakurtzen errazak al dira?		
Publizitatea eta edukiak argi eta garbi bereizten al dira?		
Edukiak argiak, nahikoak eta zehatzak al dira?		
Edukiek hurrenkera logikoa al dute?		
Dendan zeharreko nabigazioa argia eta erraza al da?		
Nabigazioak nahi dugun lekura eramaten eta non gauden jakinarazten al du?		
Nahi dugun lekura iristeko zenbat klik egin behar ditugu?		
Legezko eta bere informazio eta bezeroen segurtasunaz arduratzen al da?		
Transakzio elektronikoko bidezko ordainketetan segurtasun-protokoloa al du?		
Loturak behar bezala dabilta eta diotenera eramaten al dute?		

### B AUKERA: ALEGIAZKO DENDAREN BATEAN EGINDAKO EROSKETA AZTERTUKO DUGU

Aurreko aukeran alegiazko dendaren funtzionamendua aztertu ondoren, ikerketa osatuko dugu aipatutako denda horietan erosketa bat egingo dugula. Jarraian, aztertu beharreko hainbat kontu proposatu dizkizuegu.

AZTERTU BEHARREKO ALDERDIAK	1. Denda	2. Denda
Enpresaren helbidea, telefonoa, e-maila		
Produktuari buruzko informazioa		
Eskatzen dugun produktua duten		
Erosketaren errentagarritasuna denda tradizional baten aldean		
Erostekeko prozesuan laguntza ere egotea		
Alta egiteko aukera derrigorrezkoa/hautazkoa da		
Kontsumitzailearen eskubideei buruz ematen duten informazioa, hala nola datuen pribatasuna, legezko terminoak, itzultzeko aukera...		
Segurtasun-protokoloa		
On linean ordaintzeko aukera (kreditu-txartela) eta off linean (transferentzia, jasotzean ordaintzea...)		
Eskaria egiaztatzen dute		
Igorketa-moduei eta kostuei buruzko informazioa		
Eskariaren jarraipena egiteko eta irten dela egiaztatzeko aukera		
Entrega-egunak betetzea		
Produktua inolako arrazoirik alegatu gabe itzultzeko aukera		

## 6. FITXA: HITZ NAHASIEN JOKOA

Zein dira esaldi hauetan, birus batek nahasi dituenetan, dauden enigmak?

1. Ez dtu oiinz etlnrten zedbi gueztua dadun teibanorkin orduahitz eggoin soengura menikbai izan gabe. Nire soakgura osad baldin daudeba leku blipuko teanba geturako dut eta nire aita edo reamakin tebara gojoan naiz.
2. Ez dut reni arzkgaia edo stebe zeredo zagau inoiz bilidako nire soguraek autikrre ez duteba teraztu.
3. seDesoro senzentiara zumeren bati ez diot tzunikeran ngoema. goEgin banu nire soeigura esgoan kenie eta, rreahola, ardunekinradu maharretanne korrija tekelira.
4. netenInter ganabitzeko arauak tekozehaz nire soegurakin hitz goegin dut. soGura eta renhiru artean tatutakonek egon kennaite denbora eta sibita ditzakedan kuleak zein diren baerakiko dugu. Ez naiz latebesko leku eabatn sartuko eta ez ditut kauara tsihauko ienbera menbaik izan gabe.
5. teneInterko hipasatza ez diot inori goaemn (taez nire niggula neione ere), nire soeigura baino ez.
6. ltenenterko eratzabille ona goizan naiz eta ez dut stbee tsoperna eibatzu kalte egin zaiediekeen edo lgeze kanpokoa den zeredo egingo.
7. Ez dut mazioinfor kilapertson goeman soengura menbaik izan ezean, nire biahelde, nire fonotele-bakizena, soengura kokilanto helbidea eta fonotelea, tenikas dudan txekikastearen helbidea eta naize teraesako.
8. maInforzioren bat sorodese araztensenti nuaba soeigura ahalik eta telasren kotukonta diet.



# 4. DENBORA-PASAK

## 1.- LETRA-ZOPA

Ordenagailu baten honako elementu periferikoak aurki itzazu:

- Teklatua                      Eskaner
- Inprimagailua              Modem
- Sagu                          Grabagailua
- Irakurgailu
- Irakurgailu optikoa
- Monitore

R	E	N	A	K	S	E	Y	P	T	E	K	L	A	T	U	A	U
O	P	Z	Y	X	J	N	A	I	D	F	G	H	J	K	L	Ñ	L
M	Z	X	P	H	P	V	T	M	A	S	D	F	G	H	J	K	I
I	R	A	K	U	R	G	A	I	L	U	O	P	T	I	K	O	A
E	R	O	T	I	N	O	M	X	C	R	V	B	N	M	Q	R	G
R	B	B	U	I	M	P	R	I	M	A	G	A	I	L	U	A	R
O	N	G	O	C	O	E	Y	U	I	O	P	R	A	S	D	F	U
Q	A	N	T	A	D	D	Z	X	C	V	B	N	O	M	Ñ	K	K
S	T	M	R	K	E	J	Q	W	E	R	T	Y	U	I	O	P	A
R	A	F	J	I	M	G	A	C	I	C	L	I	S	M	O	B	R
T	I	K	B	M	A	U	L	I	A	G	A	B	A	R	G	D	I
Y	O	O	N	C	J	H	X	W	F	G	B	N	N	T	H	X	I

## 2.- HITZ GURUTZATUAK

Izartxo señalatutako letrak gurutzegraman elkartu eta Internetekin lotutako hitz giltzarri bat lortuko duzu. Asmatu hitza zein den.

### Ezker eskuin:

- 1.- Batzuk zetazkoak dira eta Interneten ere badaude.
- 3.- Sistema honek sarearen bidez munduko edozein lekuarekin denbora errealean hitz egitea ahalbidetzen digu.
- 5.- Sare militarra, Interneten jatorri dena.
- 6.- Cracker izenekoaren kontrakoa.
- 8.- Ingelesez, erabiltzaile bati sareko zerbitzu baterako sarbidea ematen dion pasahitza.

### Goitik behera:

- 2.- Birusek gure artxiboak kutsatu ditzaten eragozten duen programa.
- 4.- Pisu eta bolumeneko neurria izan zen, hitz honek nahasketa latina eta musulmana du eta egun informatikaren alorrean erabiltzen dugu.
- 7.- Bertan kafe bat hartu eta sarean nabigatu ahal duzu.
- 9.- Horrela esaten zaio sareen sareari.
- 10.- Datu-paketeak, hirugarrenek ikus ez ditzaten, ezkutatzeko eta kodetzeko prozesua.

**HITZ GAKOIA**

7 10 3 9 6 2 1 10 8 5

## 3.- ZAZPI ERROREEN JOKOA

Begiratu bi irudi hauei eta aurkitu bertan dauden 7 erroreak.





# 5. DENBORA-PASEN SOLUZIOAK

## 1.- LETRA-ZOPA

Ordenagailu baten periferikoak honakoak dira:

Irakurgailu optikoa

Teklatua

Inprimagailua

Sagu

Irakurgailu

Monitore

Eskaner

Modem

Grabagailua

R	E	N	A	K	S	E	Y	P	T	E	K	L	A	T	U	A	U
O	P	Z	Y	X	J	N	A	I	D	F	G	H	J	K	L	Ñ	L
M	Z	X	P	H	P	V	T	M	A	S	D	F	G	H	J	K	I
I	R	A	K	U	R	G	A	I	L	U	O	P	T	I	K	O	A
E	R	O	T	I	N	O	M	X	C	R	V	B	N	M	Q	R	G
R	B	B	U	I	M	P	R	I	M	A	G	A	I	L	U	A	R
O	N	G	O	C	O	E	Y	U	I	O	P	R	A	S	D	F	U
Q	A	N	T	A	D	D	Z	X	C	V	B	N	O	M	Ñ	K	K
S	T	M	R	K	E	J	Q	W	E	R	T	Y	U	I	O	P	A
R	A	F	J	I	M	G	A	C	I	C	L	I	S	M	O	B	R
T	I	K	B	M	A	U	L	I	A	G	A	B	A	R	G	D	I
Y	O	O	N	C	J	H	X	W	F	G	B	N	N	T	H	X	I

## 2.- HITZ GURUTZATUAK

**Ezker eskuin:**

- 1.- Har
- 3.- Chat
- 5.- Arpaneta
- 6.- Hackerra
- 8.- Pasahitza

**Goitik behera:**

- 2.- Antibirus
- 4.- Arroba
- 7.- Ziberkafetegia
- 9.- Internet
- 10.- Enkriptatu

**HITZ GAKOA**

I	N	T	E	R	N	A	U	T	A
7	10	3	9	6	2	1	10	8	5

U  
T  
A  
T  
P  
I  
R  
I  
N  
E  
K  
E  
A  
R  
P  
A  
N  
E  
T  
A  
K  
E  
C  
H  
A  
T  
F  
E  
T  
H  
A  
C  
K  
E  
R  
R  
A  
G  
P  
A  
S  
A  
H  
I  
T  
Z  
A  
N  
R  
A  
T  
R  
O  
B  
I  
A  
H  
A  
R  
U  
S



### 3.- ZAZPI ERROREEN JOKOA



## 6. UMORE GRAFIKOA

Hauak dira aukeratu ditugun komiki-banda batzuk<sup>(1)</sup>. Zuk ere bilatu bestelako batzuk. Bakarrik edo taldean egin dezakezu.



<sup>(1)</sup> [Atodohumor.cjb.net](http://Atodohumor.cjb.net)  
Nik



# ERANSKINA

Erantzun inkesta honi. Inkesta zure senideei eta lagunei ere eman diezazkiezu. Orain gai honen inguruan asko dakizula, emaitzak azter itzazu eta ondorioak atera itzazu.

## INKESTA: INFORMATIKA ETA INTERNETEN ARRISKUAK EZAGUTZEN AL DITUGU?

1. Informatikako produktu motaren bat eta Internet erabiltzen al duzu?

Bai\_

Ez\_

Zergatik?

Baietza ematekotan, adierazi zein.

---

---

---

---

2. Informatikako produktuek eta Internetek salmentan egon ahal izateko izan behar dituzten eskakizunak ezagutzen al dituzu?

Bai\_

Ez\_

Baietza ematekotan, adierazi zein.

---

---

---

---

3. Informatika eta Internet gaizki erabiltzearen arriskuak ezagutzen al dituzu?

Bai\_

Ez\_

Baietza ematekotan, adierazi zein.

---

---

---

---

4. Ongi informatuta egoteari garrantzia ematen al diozu?

Bai\_

Ez\_

Zergatik?

---

---

---

---

5. Ez baduzu gaiari buruzko informaziorik, nora joko zenuke informazio bila?

---

---

---

---

6. Eta informatikako produkturen batetik eta Internetekin arazoren bat izatekotan, nora joko zenuke?

---

---

---

---

Eskuratzen dituzun emaitzak ikusita, hausnarketa egin eta horren arabera jardun. Ez al duzu uste ongi egongo litzatekeela gaiaren inguruko informazio-kanpaina egitea? Jarri berriz ere lanean. Asmatu metodo bat eta ikasi duzuna zabal ezazu (foroetan edo zure webean bertan esaterako).

